BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3635

AGINDUA, 2025eko uztailaren 23koa, Osasuneko sailburuarena, Agiri Klinikoak Baloratzeko, Aukeratzeko eta Garbitzeko Batzordea aldatzen duena eta egungo osaera osoa argitara emateko dena.

f) Agiri Klinikoak Baloratzeko, Aukeratzeko eta Garbitzeko Batzordea (AKBAGABA), martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuaz sortua (38/2012 Dekretua, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa). Haren 22. artikuluak osasun-arloan eskumena duen sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa eratu zuen, dokumentazio klinikoaren arloan aholkularitzako eta jarraibideak eta gomendioak egiteko hainbat eginkizun betetzeko.

Batzordea hamaika kidek osatzen dute, aipatutako artikuluan xedatutako ordezkaritza-arauen arabera. Atxikita dagoen saileko titularrak izendatuko ditu, ordezkatzen duten erakundeak proposatuta.

Batzordearen hasierako osaera Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko ekainaren 29ko Aginduaren bidez ezarri zen (2012ko uztailaren 27ko EHAA, 146. zk.). Gaur arte, hainbat aldiz aldatu da haren osaera, eta azken eta egungo osaera Osasuneko sailburuaren 2021eko abenduaren 2ko Aginduaren bidez onartu da (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA, 12. zk.).

Igarotako denbora eta aldi horretan izandako inguruabar pertsonalak eta antolakuntzakoak direla-eta, Batzordearen osaera partzialki aldatu behar da.

Era berean, gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren arloko arrazoiak direla-eta, komeni da Batzordearen gaur egungo osaera argitara ematea.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agiri Klinikoak Baloratzeko, Aukeratzeko eta Garbitzeko Batzordearen osaera aldatzea, ondoren aipatzen diren izendapenak eta kargu-uzteak onartuz:

a) José Miguel Barturen Gamboa jauna izendatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ordezkari, June Kortajarena Ambélez andrearen ordez.

b) María Begoña Domínguez Álvarez andrea izendatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ordezkari, Iñaki Antizar Muerza jaunaren ordez.

c) Koldo Mikel Lizartza Arregui jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko ospitaleen ordezkari, José Julio Peña González jaunaren ordez.

d) Mario Ernesto Jiménez Mercado jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko lehen mailako arretaren ordezkari, Enrique Contreras Fuente jaunaren ordez.

e) Carmen Salguero Pérez andrea izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko osasun pribatuaren ordezkari, Nuria Achaerandio Galdos andrearen ordez.

f) Manuel Díaz de Corcuera Ruiz de Oña jauna izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko osasun pribatuaren ordezkari, Joseba Vidorreta Gómez jaunaren ordez.

g) Oihana Artetxe Arostegi andrea izendatzea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren mendeko Euskadiko Artxibo Historikoaren zerbitzuaren ordezkari titular, Miren Josebe Alonso Marigómez andrearen ordez.

Unai Cuevas Arano jauna ordezko izendatzea.

h) Igor Goirizelaia Ziardegi jauna izendatzea, informatika-sistemetan espezialista, Iñigo Armendariz Pérez jaunaren ordez.

Bigarrena.– Batzordearen gaur egungo osaera argitara ematea:

a) Osasun Sailaren ordezkaritzan:

José Miguel Barturen Gamboa jauna.

María Begoña Domínguez Álvarez Andrea.

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Erakunde Zentralaren ordezkaritzan:

María Teresa Madrid Conde Andrea.

Adelina Pérez Alonso Andrea.

c) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren menpeko ospitaleen ordezkaritzan:

Koldo Mikel Lizartza Arregui jauna.

d) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko lehen mailako arretaren ordezkaritzan:

Mario Ernesto Jiménez Mercado jauna.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko osasun pribatuaren ordezkaritzan:

Nicolás Guerra Zaldua jauna.

Carmen Salguero Pérez Andrea.

Manuel Díaz de Corcuera Ruiz de Oña jauna.

f) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskadiko Artxibo Historikoaren zerbitzuaren ordezkaritzan:

Titularra: Oihana Artetxe Arostegi Andrea.

Ordezkoa: Unai Cuevas Arano jauna.

g) Sistema informatikoetan espezialista:

Igor Goirizelaia Ziardegi jauna.

Hirugarrena.– José Miguel Barturen Gamboa jaunak eta María Begoña Domínguez Álvarez andreak, hurrenez hurren, batzordeburu eta idazkari jardungo dute.

Izaskun Egiluz Ibarguen andreak eta Asier Alustiza Etxebarria jaunak ordezkatuko dituzte, hurrenez hurren, kargua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago edo kargua betetzea eragozten duen legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada. Haien izendapenak agindu honen bidez onartu dira.

Laugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 23a.

Osasuneko sailburua,
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.